

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Udal lurzatia Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari doan lagatzea behin betiko onartzea, alokairuko etxebizitza sozialak sustatzeko

Udaleko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 10ean, egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Zuiako Udalaren jabetzako ondare-ondasun hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari alokairu-erregimeneko etxebizitza sozialak sustatzeko doan lagatzea:

- Kokapena: 304. partzela, 7. poligonoa, Murgia, Domingo de Sautu kalea.
- Izaera: ondarea.
- Partzelaren azalera: 698,90 metro koadro.

– Mugak: iparraldean, Zuiako Udalaren 7. poligonoko 57. partzela eta birpartzelazio-proiektu honetako bigarren emaitzako partzela; hegoaldean, birpartzelazio-proiektu honetako hirugarren emaitzako partzela, erabilera eta jabari publikoko oinezkoentzako bide gisa erabiliko dena; ekialdean, Zuiako Udalaren 7. poligonoko 58. partzela eta birpartzelazio-proiektu honetako bigarren emaitzako partzela; mendebaldean, erabilera eta jabari publikoko oinezkoentzako bide gisa erabiliko den birpartzelazio-proiektu honetako hirugarren emaitzako partzela.

- Hirigintzako kalifikazioa eta sailkapena: hiri-izaera.

Hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarri zen 20 egunez, ALHAOn argitaratu zen 2024ko urriaren 18an (119 zk.), eta ez da alegaziorik aurkeztu. Horrenbestez, erabaki hori behin betiko bihurtu da.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau.

Behin betiko onespenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluetan, hargatik eragotzi gabe egoki iritzitako beste edozein errekurtso.

Murgia, 2024ko azaroaren 21a

Alkate-udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA